



# GIPUZKOAKO 2015KO TRAINERU TXAPELKETARAKO CAMPEONATO DE GIPUZKOA DE TRAINERAS 2015



## ZIRKULARRA

## CIRCULAR

### 1. DATA, LEKUA ETA ORDUA

**2015ko** uztailaren 15an, asteazkena, **18:30ean**, jokatu da **DONOSTIAN** Gipuzkoako gizonezkoen eta emakumezkoen Traineru Txapelketa.

### 2. IZEN EMATEA

Sailkapen estropada honetarako izena emateko epea uztailaren 13ean (astelehena) amaituko da, **19:30ean**. Izena emateko orriak, behar bezala beteta, Federaziora bidali behar dira faxez edo postaz (ohiko posta edo elektronikoa: galdera@fgremo.com).

### 3. ANTOLAKUNTZA BATZORDEA

Antolakuntza Batzordea hauek osatuko dute: Gipuzkoako Arraunketa Federazioko lehendakaria edo lehendakariordea, Gipuzkoako Arraunketa Federazioko Zuzendaritza Batzordeko kide bat, estropadako Segurtasun Koordinatzailea eta GAFren Gipuzkoako Epaila Eskolako presidentea.

### 4. ORDEZKARIEN BILERA

Uztailaren 15an, 17:00etan, ordezkarien bilera egingo da Donostiako **AQUARIUMeko** ekitaldi aretoan, eta han egingo da zozketa gizonezkoen eta emakumezkoen txandetan bakoitzak izango duen kalea erabakitzeko.

### 5. ARAUDIA

Araudi hauek erabiliko dira: *Euskadiko Arraunketa Federazioaren Estropada Kodea*, *Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Gipuzkoako Traineru Txapelketako Araudia* eta araudi osagarria.

### 6. PISAKETAK

PATROIAK:

**Uztailaren 15an, 17:00etatik aurrera**, patroiak epaimahaiaren aurrean azalduko dira, ordezkariekin batera, Donostia-Arraun Lagunak-en sotoan; pisura iristen ez badira, lasta eta guzti etortzea komeni da.

ONTZIAK:

Estropadako epaimahaiak baskula prest edukiko du **uztailaren 15ko 17:30ean**, Kaiarribako aldapan, ontzien pisua egiaztatzeko.

Traineruek ez dute lastarik izango; hau da, ontzian jarri behar den gehigarria, *Euskadiko Arraunketa Federazioaren Estropada Kodearen* arabera, **traineruan finkatuta joango da eta zuntzez eta erretxinez estalia.**

### 7. TXANDEN OSAERA ETA HURRENKERA

EMAKUMEZKOEN KATEGORIA:

"Gipuzkoako Emakumezkoen VI Traineru Ligako (2015)" sailkapenaren arabera lehiatuko dira emakumezkoak:

### 1. FECHA, LUGAR Y HORA DE CELEBRACIÓN

El miércoles día **15 de julio de 2015** a las **18:30 h.** se celebrará en **DONOSTIA** el Campeonato de Gipuzkoa de Traineras en las categorías masculina y femenina.

### 2. INSCRIPCIÓN

El cierre de inscripción para esta regata clasificatoria será el lunes **13 de julio a las 19:30 horas** pudiéndose enviar las hojas de inscripción, debidamente cumplimentadas, a esta federación bien por fax o por correo (postal o electrónico: galdera@fgremo.com).

### 3. COMITÉ ORGANIZADOR

El Comité Organizador estará compuesto por el Presidente de la Federación Guipuzcoana Remo o Vicepresidente en quien delegue, un miembro de la Junta Directiva de la Federación Guipuzcoana de Remo, el Coordinador de Seguridad de la regata y la Presidenta del Colegio Guipuzcoano de árbitros de la F.G.R.

### 4. REUNIÓN DE DELEGADOS

El día **15 de julio**, a las **17:00 horas** se celebrará la reunión de delegados/as en el salón de actos del **AQUARIUM** de Donostia, donde se procederá el acto de sorteo de calles de cada tanda para las categorías femenina y masculina.

### 5. REGLAMENTACIÓN

Este campeonato se regirá por el *Código de Regatas de la Federación Vasca de Remo*, *Reglamento del Campeonato de Gipuzkoa de Traineras de la Federación Guipuzcoana de Remo* y normativa complementaria.

### 6. PESAJES

DE PATRONES / PATRONAS:

Las patronas y patrones tendrán que acompañar al delegado/a a partir de las **17:00 horas** del día **15 de julio** y presentarse para el pesaje ante el jurado en el soto de Donostia-Arraun Lagunak de Kaiarriba, rogando que si no llegan al peso, vengan con el debido lastre.

DE EMBARCACIONES:

El jurado de la regata tendrá dispuesta la báscula a las **17:30 horas** del día **15 de julio** junto a la rampa de Kaiarriba para que se pueda comprobar el pesaje de las embarcaciones.

No existe lastre en las traineras, esto es, el suplemento que se tenga que colocar en una embarcación para poder alcanzar el peso mínimo especificado en el *Código de Regatas de la F.V.R.* **irá fijo en la trainera y cubierto con fibra y resina.**

### 7. CONFECCIÓN Y ORDEN DE LAS TANDAS

CATEGORÍA FEMENINA:

La categoría femenina competirá según el orden clasificatorio de la "VI Liga Guipuzcoana Femenina de Traineras 2015":

**"A" TXANDA:** "Gipuzkoako Emakumezkoen VI Traineru Ligako (2015)" sailkapenean lehen 4 postuetan daudenek osatuko dute.

**"B" TXANDA:** "Gipuzkoako Emakumezkoen VI Traineru Ligako (2015)" sailkapenean gainerako 4 postuetan daudenek osatuko dute.

**TANDA "A":** Formada por las **4 tripulaciones** que estén clasificadas en los puestos finales de la "VI Liga Guipuzcoana Femenina de Traineras 2015".

**TANDA "B":** Formada por las restantes **4 tripulaciones** participantes en la "VI Liga Guipuzcoana Femenina de Traineras 2015"

#### GIZONEZKOEN KATEGORIA:

Gipuzkoako Traineru Txapelketaren Lehiaketa Araudiak 7. artikuluan (Txanden osaera eta hurrenkera) ezartzen duenaren arabera, izena emateko epea amaitzen denean osatuko dira txandak. Izena eman duten traineru kopuruaren arabera, eta estropada jokatu den eremuak zenbat kale dituen aintzat harturik, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak antolatuko ditu txandak, baina sailkapen bakarra egongo da.

*Gipuzkoako Traineru Txapelketako Txanden hurrenkera ezartzeko, sailkapen bat egingo da txapelketaren aurreko astean. Lehenbizi, kontuan hartuko dira TKE n ondoen sailkatutik dauden klubak, ondoren ARC-1ean, eta azkenik ARC-2an.*

*Txanden osaera une horretako sailkapenaren alderantzizkoa izango da; hau da, 1. txandan 9. postuan sailkatuta dagoenetik azken sailkatuta bitartekoak irtengo dira, 2. txandan 5. sailkatutik 8 sailkatuta bitartekoak eta 3. txandan 1. sailkatutik 4. sailkatuta.*

### 8. BANDERA ETA SARI BANAKETA

Irabazleei banderak eta sariak banatuko zaizkie estropada bakoitzaren ondoren, hartarako berariaz prestatutako ontzi batean.

Dominak, aldiz, ontziak lehorreratzean banatuko dira, Kaiarribako maldaren ondoan.

Txapelketan sarituak izan diren guztiak nahitaez agertu beharko dira sari banaketan. Agertzen ez badira, GAFko Zuzendaritza Batzordeak diziplina neurriak hartuko ditu inolako arrazoirik eman gabe domina banaketara agertu ez diren arraunlarien aurka.

Sari hauek banatuko dira:

- Gipuzkoako Txapelketako lehen sailkatuari, kategoria bakoitzean, bandera, txapela eta urre koloreko domina emango zaio.
- Gipuzkoako Txapelketako bigarren sailkatuari, kategoria bakoitzean, zilar koloreko domina emango zaio.
- Gipuzkoako Txapelketako hirugarren sailkatuari, kategoria bakoitzean, brontze koloreko domina emango zaio.

### 9. ESTROPADAKO SEGURTASUNA

Antolakuntzak larrialdietarako prest izango ditu Salbamendu eta Sorospen baliabide guztiak.

"Itsas Segurtasunerako Baldintzen Araudiak" (urtarrilaren 25eko 62/2008 Errege Dekretua) ezarritakoaren arabera, Federazioak "Segurtasun koordinatzaile" bat izendatuko. GAFren zuzendaritzako kide bat izango da, eta berak izango du estropadaren ardura nagusia. Bere ardura izango da estropada egoki gauzatzeko behar diren baimenak begiratzea.

#### CATEGORÍA MASCULINA:

De acuerdo a lo que establece el Reglamento de Competición para el Campeonato de Gipuzkoa de Traineras en su Artículo 7 "Confección y Orden de las Tandas", y "tras el cierre del plazo de inscripción en el Campeonato de Gipuzkoa de Traineras, se procederá a la confección de tandas. A la vista del número de equipos (traineras) inscritos en el Campeonato de Gipuzkoa, y teniendo presente el número de calles, la Junta Directiva de la Federación Guipuzcoana de Remo realizará la confección de tandas, si bien la clasificación será única.

*Para establecer el orden de las tandas del Campeonato de Gipuzkoa de Traineras, se elaborará una clasificación el fin de semana anterior al de la celebración del campeonato. En primer lugar, se tomarán en cuenta los clubes mejor clasificados en la liga ACT, después los de la Liga ARC-1 y por último, los de la liga ARC-2.*

*La confección de las tandas será en orden inverso a la clasificación en ese momento, es decir 1ª tanda estará compuesta del 9º al último clasificado, la 2ª tanda, del 5º al 8º clasificado y la 3ª tanda, del 1º al 4º clasificado.*

### 8. ENTREGA DE BANDERAS Y TROFEOS

La entrega de banderas y txapelas a las ganadoras y ganadores se realizará al término de cada regata desde una embarcación reservada al efecto.

La imposición de medallas se llevará a cabo una vez desembarcadas las tripulaciones junto a la rampa de Kaiarriba.

Es obligatoria la asistencia a la imposición de medallas de todos y todas las remeras que hayan resultado premiados/as en el Campeonato. De no hacerlo, la Junta Directiva de la F.G.R. aplicará medidas disciplinarias a aquellos o aquellas deportistas que sin causa justificada (relevante) se abstengan de participar en la entrega de medallas.

Los trofeos para este Campeonato son los siguientes:

- Primer clasificado del Campeonato de Gipuzkoa, en cada categoría, bandera, txapela y medalla color oro.
- Segundo clasificado del Campeonato de Gipuzkoa, en cada categoría, medalla color plata.
- Tercer clasificado Campeonato de Gipuzkoa, en cada categoría, medalla color bronce.

### 9. SEGURIDAD DE LA REGATA

La organización tendrá previsto para caso de emergencia los medios necesarios de Salvamento y Socorrismo.

De conformidad con lo que establece el "Reglamento de las Condiciones de Seguridad Marítima" (Real Decreto 62/2008, de 25 de enero), por parte de la Federación se designará un "Coordinador de Seguridad" que será un miembro directivo de la F.G.R. y máximo responsable de la seguridad de la regata. El mismo será el encargado de la supervisión de los permisos y

Berak eman beharko du baimena estropada jokatzeko, baita bertan behera uzteko ere, kausa klimatologikoengatik.

autorizaciones correspondientes que procedan para el buen desarrollo de la competición. Será, también, quien autorice la celebración o suspensión de la misma por causas climatológicas.

#### **10. PASEALEKU BERRIKO APARKALEKUA**

Pasealeku Berriko aparkalekua, Urgull mendirako igoera hasten de lekuan dagoena, hesitua egongo da Gipuzkoako Arraunketa Federazioak baimena eman dien kirolari eta zuzendaritzako kideen autobus eta ibilgailuentzat.

Donostia, 2015ko ekainaren 22a.

*Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren  
Zuzendaritza Batzordea*

#### **10. APARCAMIENTO PASEO NUEVO**

El aparcamiento del Pº Nuevo junto a la subida al Monte Urgull estará acotado para el estacionamiento de autobuses y vehículos de los y las deportistas y directivos autorizados exclusivamente por la Federación Guipuzcoana de Remo.

Donostia a 22 de junio de 2015

*La Junta Directiva  
de la Federación Guipuzcoana de Remo*